



# Ingurumenari buruzko inkesta

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

## HELBURUA

- Ikasleek eguneroko bizimoduko jarduketa batzuek ingurumenari dakarzkieten ondorioen aurrean duten jarreraren eta sentiberatasun mailaren berri izatea.

## Jardueraren garapena

Ikasleei ingurumenarekin loturiko zenbait gairekiko duten jarrerari buruzko baieztapen batzuekin ados dauden ala ez adieraztea proposatuko diegu. Inkestak anonimoak izango dira.

Irakasleak bildu egingo ditu eta, emaitzekin, bertan islatutako jarrerei buruzko eztabaida planteatuko du ikasgelan.

## Inkesta

Erantzun galdera hauet:

- 1) Lurreko natur baliabideak (ura, egurra,...) oso oparoak dira eta gizakiok ahalik eta gehien erabil ditzagun daude berton.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

- 2) Eskolara edo lantokira joateko, garraiobide publikoak erabili behar ditugu, batzuetan autoa bezain erosoak ez badira ere.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

- 3) Ogibide batean zenbat eta diru gehiago irabazi, orduan eta garrantzitsuagoa da hura.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

- 4) Txatar-biltzaile, trapuketari edo kale-garbitzaileen lana irakasle, erizain edo nekazari lana bezain garrantzitsua da.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

- 5) Neure gauzak (liburuak, jostailuak, arropa...) ondo zaintzen baditut, zura, metalak, ura, petrolio eta beste baliabide batzuen ustiakuntza urritzen laguntzen dut.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

- 6) Eguneroko kontsumoan sortzen ditugun hondakinek (janari hondarrek, paperak, beirak, potoek...) ez dute ezertarako balio; horrexegatik botatzen ditugu zakarrontzira.

☐ BAI ☐ EZ ☐ BERDIN DIT

Iturria:

ESTUDIOS INFORMES NAVARRA, S.L. (koord.). **Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Lehen Hezkuntza. Ekonomi Jarduerak eta ingurugiroa.** // **Materiales de Educación Ambiental. Educación Primaria. Actividades Económicas y Medio Ambiente.** (Unitate Didaktikoen karpeta) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Gasteiz, 1996.